ASTEKARIA | 2015eko maiatzaren 29an | XVIII. urtea | USURBIL | 617. zenbakia | www.noaua.eus

TOKIKOM

# noaua



Udajolaserako begiraleak behar dira

Gida-baimena ere, euskaraz atera daiteke

Maitena Monroy: “Emakumeen aurkako indarkeriak guztiokin du zerikusia”

# Xabier Arregi eta bere lan-taldearen txanda da

USURBILGO LANBIDE ESKOLA

✆ 943 36 46 00

www.lhusurbil.com

**Erdi eta goi mailako zikloak A eta D Ereduak**

| Administrazioa | Elektrizitate-elektronika | Fabrikazio mekanikoa | Ura eta energia<br>Produkzio zerbitzu eta manten. |
|---|---|---|---|






**Honako honen bila bazabiltza:** Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.

**AURREMATRIKULA maiatzaren 25etik ekainaren 5era**

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

Lehenengo 6 erosleentzako, garaje bikoitza banakako prezioan!

**188.000 € tik**



12 ETXEBIZITZA INGURUNE PAREGABEAN **Agerreazpin**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN



VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1º Behea
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

**943 46 88 60**

www.viviendaslanin.com

## Albistea iruditan

# Udajolaserako begiraleak behar dira

Udan haurrekin aisialdi eremuan lan egin nahi duzu, euskaraz eta giro ederrean? Honatx zuretzako aproposa izan daitekeen lan eskaintza. Uztailaren 6tik 30era Udalarekin batera antolatu dugun Udajolas ekimenean lan egiteko begiraleak behar ditugu. 2 urteko esperientzia eskatzen da begirale moduan, begirale titulua izatea eta EGA edo baliokidea den agiria. Usurbildarrek izango dute lehentasuna. Interesdunok, bidali zuen kurrikuluma ekainaren 5a baino lehen, NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzara edo elkartea@noaua.eus helbidera.



**Uztailaren 6an hasiko da Udajolas eta begiraleak behar dira. Ekainaren 5a baino lehen bidali kurriculum-ak.**

**Guraso bilera, ekainaren 10ean**

Udajolasen izena eman duten haurren gurasoentzako oharra; aisialdi ekimenari buruzko argibideak jasotzeko, urteroko bilera, ekainaren 10ean arratsaldeko 17:00etan Potxoenean. Udalekuak berriz, Santixabelak bukatu eta biharamunetik, uztailaren 6tik hasita uztailaren 30era arte. Astelehenetik ostiralera, goizez eta lau orduz, 9:30-13:30 artean frontoian.

## Laburrean

### Bihotz biriken suspertze eguna eta sorospen ikastaroa

Maiatzaren 29an, 17:00-20:00 artean frontoian, DYA-k antolatuta. Hainbat stand jarriko dituzte eta nahi duen orok oinarrizko suspertze teknikak ikasi ahal izango ditu doan.

Ekainaren 6tik 28ra, sosrpen ikastaroa DYA-ren egoitzan eta Oiardon. Izena emateko eta informazio gehiagorako: 943 46 46 22.

### Arropa diseinatzaileen erakusketa

Bertako arropa diseinatzaileen erakusketa eta salmenta gunean bilakatuko da Sutegi, ekainaren 1etik 15era, "Bi txoriburu" izeneko proiektuaren baitan. Ekainaren 6an inauguratuko dute baina ekainaren 1etik aurrera zabalik izango da Sutegin: Astelehenetik ostiralera: 17:00-20:00. Larunbat/igandea: 12:00-14:00 / 17:00-20:00.

### Aginagako txokoetako izen ematea, irekita oraindik

San Praixku Guraso Elkarteak antolaturiko 4-12 urte artekoentzako aisialdiko ekimena, ekainaren 22tik aurrera, uztaila amaierara arte. Egunero, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:00etara (sarrera ordua, 10:00ak arte). Izena emateko: 607 484 597 (Ainhoa) / aginaga@eskolatxikiak.org. Prezioa, izen-emate kopuruaren arabera zehaztuko da.

noaua
Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14.00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

**Elkarteko lehendakaria:** Idoia Torregarai.
**Aldizkariko koordinatzailea:** Imanol Ubeda.
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.
**Publizitatea:** Beatriz Alda, publizitatea@noaua.eus
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.
**Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.eus:** Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
**Banaketa:** Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
**Tirada:** 2.800 ale.
**Lege–Gordailua:** SS-668-96
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Usurbilgo Udala

AIRE, AIRE !!! EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**Imanol Ubeda**

# Markak

Sustraitu nahi badu, marka batek premiazkoa du izaera jakin batekin lotzea. Eta identifikatzeko erraza izan dadin, balio eta esanahi jakin batzuekin harremanatzea. Marketing kontuetan 'branding' deitzen diote horri.

Sinesgarritasuna. Bereizgarritasuna. Horiek ere ezinbesteko elementuak dira.

Alderdi politikoak ere, marketing arauen menpe daude. Markak dira. Euren irudiak, euren mezuak, oso ondo zainduak daude. Eta helburu jakin batzuetara lerrotuak daude.

Hauteskunde kanpaina honetan ikusi dugu. Usurbilen ere, marka politikoentzat asko zegoen jokoan. Eta hauteskunde kanpaina horren erakusgarri izan da.

EHBilduk ez zuen lan erraza. Botereak faktura pasa ohi dio agintean izan ohi den alderdiari. Gehiengo absolutuan den alderdi batek gainera, erosotasunean erortzeko arriskua du.

Askoren harridurarako, Mertxe Aizpuruak bere lantokira itzultzea erabaki zuen eta alkategai berri baten bila hasi behar izan zuten urte hasieran. Kanpotik begira, Xabier Arregi hautatu arteko prozesua normaltasunez eta naturaltasunez eraman dute.

Ondoren iritsi zen kanpaina egiteko garaia, eta gehiengoak eman dezakeen harrotasuna alde batera utzi eta gogotsu irten ziren azalpenak ematera eta herritarren proposamenak entzutera. Denbora horretan, EHBilduk bere markako ezaugarri bat azpimarratu du behin eta berriz: partehartzea. Jende asko aritu da programaren baitan lanean eta, ondoren, auzoz auzo ibili dira programa aurkezten; aukeran, ezagutu nahi zuen orori azaldu beharrekoak azaltzen.

Ezaugarri zehatzak dituen beste marka EAJrena da. Eta bat badu oso "markatua": kudeaketa onaren ikur bilakatu da EAJ-PNV. Beste kontu bat da errealitatea (eta Bidegiko aferak ez du marka egiten laguntzen). Baina irudi horrek, EAE osoan kudeaketa onaren ikur bilakatu duen ezaugarriak, bozka piloa ekarri dio EAJri, Gipuzkoan bereziki.

Bada aipagarri den beste kontu bat. Duela lau urteko kanpainarekin alderatuz, apustu garbia egin du alderdi jeltzaleak. EHBilduren mobilizazio ahalmenik ez du EAJk Usurbilen, baina bere kartak jokatzen asmatu du: hautagai bat bultzatu dute, irmo bultzatu ere ("sinesgarri egiteko, zeugan sinistu egin behar duzu lehenbizi", horra marketing-eko beste arau bat), eta Josune Urkolaren alde sendo jokatu dute. Euren programa, euren mezua eta euren marka zabaltzen ahalegin berezia egin dute. Eta asmatu dute nonbait. 2011n EAJk eta Hamaikabatek lortu zituzten bozkak aise gainditu dituzte 2015ean.

Abstentzioa zen beste erronka handia, baina hori ere gainditzen asmatu dute biek ala biek.

Bada Espainia aldean azkar eta sendo indartu den beste marka bat: Podemos. Marketing kontuetan trebeak. Hain trebe, udal hauteskundeetara aurkeztu gabe, hirugarren zerrenda bozkatuena izan dela Batzar Nagusietako hauteskundeetan. Hemen. 285 bozka jaso ditu Usurbilen.

Kanpaina amaitu da ordea. Marketing kontuak atzean uzteko garaia da. Ustez ondo bizi garen ingurune honetan, premian den jende asko dago. Eta horrelakoetan, elkarlana denen mesedegarri izan ohi da, baita alderdi politikoen markak hobetzeko ere.

**Imanol Ubeda** | Aritz Gorriti | Ilazki Gainza | Luis Aranalde | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Joxe Piñas




# Gidabaimena euskaraz eta doan ateratzeko aukera

Aurkeztu berri dute Buruntzaldeko udal eta autoeskoletako ordezkariek gidabaimena euskaraz ateratzea sustatzeko kanpaina berria. Gogoan izan, Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo autoeskoletan gidabaimena euskaraz atera daiteke, herriotako udalek 2010az geroztik martxan duten egitasmoarekin bat eginda baitaude, Bengoetxea, Mendi, Otamendi, Hernani, Lagunak, Izarra, Lasarte, Mugica eta Solozabal autoeskolak.

Kanpaina duela bost urte abiatu zuten Buruntzaldeko udalek, eta ordutik, laukoiztu egin da bailarako sei udalerrietan, gidabaimena euskaraz ateratzeko hautua egin duen herritar kopurua. 2010ean 34 lagun baino ez ziren izan. Iaz, 2014an, 140.



Autoeskoletako ordezkariek prentsaurrekoa eskaini zuten aurreko astean Lasarte-Orian.

**400 euroko 11 sari**

Gogoan izan, atal teorikoa euskaraz prestatu eta azterketa ere hizkuntza berean gainditzen dutenen artean, 400 euroko 11 sari zozketatzen dituztela kanpaina honetako eragileek. Nabarmendu dutenez, "herri bakoitzeko autoeskola kopuru adina saritzen dira". 2 sari Andoainen, 1 Astigarragan, 3 Hernanin, 3 Lasarten, 1 Urnietan eta 1 Usurbilen.

2015ean zehar gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz prestatu, azterketa euskaraz egin eta gainditzen dutenen arteko hurrengo zozketa, 2016ko urtarrilean egingo da. "Zozketan parte hartu ahal izateko nahitaezkoa da Buruntzaldeko herriren batean erroldatuta egotea", kanpainako sustatzaileek ohartarazi dutenez.

### Aurrematrikulazioa zabalik, Lanbide Eskolan

Ekainaren 5era arte, erdi eta goi mailako zikloetan. Interesdunek, aurrematrikulazioa bideratzeko ordutegi hau izango dute.

- Astelehenetik ostegunera: 08:30-14:30 eta 16:00-18:00.
- Ostiraletan: 9:00-14:00.
- Aurkeztu beharreko dokumentazioa: NAN fotokopia bat, egindako ikasketen ziurtagiri akademikoa (originala eta kopia), bi argazki, izen eta abizenekin atzealdean. (Matrikularako), eta kontu korronte zenbakia.
- Informazio eta argibide gehiago: 943 36 46 00
- eskola@lhusurbil.eus
- lhusurbil.eus

### Matrikulazio astea, Zumarte Musika Eskolan

Ordutegi honetan: 11:00-13:00 eta 16:30-19:30. Informazio gehiago: 943 371 594 (arratsaldez deitu) / zumarte.org

**Ika-Mika**

# Herritarron garaia da

Kaixo lagun! Bertan dugu ekaina eta urte guztian zehar herriz herri egindako lana azaleratzeko ordua hurbiltzen ari da. Erabakitzeko Eskubidearen alde metatzen ari garen indarrak erakusteko ekitaldi nagusia, aurtengo erronka, ekainaren 21ean ospatuko da herrialde bakoitzeko hiriburuetan, guri Donostiara joatea dagokigularik.

Hiri guztia okupatu eta 60.000 pertsonatik gora elkartzea da asmoa, egun guztian zehar festa eta aldarrikapena uztartuz. Egunak bi momentu berezi izango ditu; eguerdi partean oihal kate erraldoia egingo da Urumea ibaiaren inguruan eta arratsaldean ekitaldi nagusia ospatuko da Anoeta estadioan, non azken hilabeteotan herriz herri biltzen ari garen oihal-zatiak elkar josita, hautestontzi erraldoiak eraikiko ditugun, euskaldunon erabakitze nahiaren erakusgarri. Bi momentu nagusi horietaz gain, egun guztian zehar jai giroa izango da nagusi; familia gunea Ilunben (tailerrak, puzgarriak, abentura parkea, pailazoak...), goizeko 11:00tatik 17:00ra kontzertuak Anoetako mini estadioan, 3.000 pertsonentzako bazkari musikatua, gau partean erromeria mini estadioan, etab.

Anoeta estadioan ospatuko den ekitaldi nagusia ikusi ahal izateko, 10 euroko sarrera (haurrek 5 euro) ordaindu beharko du bertara sartu nahi duen guztiak. Sarrera hauek ekainaren 21era bitartean ostiralero frontoi inguruan jarriko dugun mahai ibiltarian izango dituzu eskuragarri, baita Lizardi liburu dendan ere.

Sarrerak eskuratu, kamiseta berria erosi, Erabakitzeko Eskubidearen aldeko atxikimendua eman edo informatu nahi duen orori gure mahai ibiltarira hurbiltzeko deia egiten diogu, bereziki ekainaren 5an jarriko dugun mahai ibiltari berezira. Ostiral arratsalde horretan frontoi ingurua orain arte egindako lanaren erakusgarri ederra izango da. Animatu, eta hurbildu zaitez!

Herri bat gara. Erabakitzeko Eskubidea dugu. Herritarron garaia da. Gure esku dago!

**Usurbilgo Gure Esku Dago**

txirriStra
TABERNA



-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
Kale Nagusia 10, 1.C4 20170
Tlf 943 37 08 78 USURBIL

# Xabier Arregi, EHBildu: "Herritarrek gure herri proiektua babesten jarraitzen dute"


EHBilduk gehiengo osoa eskuratu du eta horri esker, Xabier Arregi izango da alkatea datozen lau urteetan.

Oso ondo. halaxe hartu zituen herriko emai–tzak Xabier Arregik, EHBilduko hautagai nagusiak. Zenbaketa egin berritan, telefonoaren bestaldetik atenditu zigun noaua.eus orrirako. Ez zen gutxiagorako. Inguruko beste herri batzuetan gertatu denarekin alderatuz, "emaitza oso onak lortu ditugu Usurbilen".

Gipuzkoako emaitzak ikusita ordea, ez genuen hain pozik sumatu. "Eskualde mailako politikak bideratzeko garaian, adibidez, emaitza hauek eragina izango dute", aitortu zigunez. "Baina goiz da oraindik balorazio zehatz bat egiteko. Ondo aztertu beharko dira emaitzak, denbora gehiagorekin".

Herri mailan, udal hauteskunde kanpainak iraun duen egunetan, ekitaldi ugari egin ditu EHBilduk. Eta ekitaldi horietan lehen lerroan izan da Xabier Arregi bera. Lan horrek bere emaitza izan du, nonbait: "Hauteskundeak irabazi ditugu Usurbilen, gehiengo absolutuarekin. Eta alde zabalarekin lortu dugu gainera gehiengo hori. Beraz gure emaitzak oso onak dira eta horregatik oso pozik gaude. Usurbilen herritarrek gure herri proiektua babesten jarraitzen dute".

Partehartzea pixka bat jai–tsi den arren, bozka ugari batu du EHBildu koalizioak.

> **XABIER ARREGI**
>
> ***"Gehiengo absolutuarekin irabazi dugu. Eta alde zabalarekin lortu dugu gehiengo hori"***

## Udal hauteskundeak 2015




| Logo | Hautagai-zerrenda | Kolorea | Botoak | Botoen % | Jarlekuak |
|---|---|---|---|---|---|
| | EH BILDU | | 1.714 | %59,68 | 8 |
| | EAJ-PNV | | 866 | %30,15 | 4 |
| | PSE-EE | | 234 | %8,15 | 1 |
| | PP | | 58 | %2,02 | - |

**Errolda: 4.696.** 2011n: 4.712.
**Boto-emaileak: 3.032, %64,37.** 2011n: 3.207, 68,06%.
**Abstentzioa: 1.664, %35,43.** 2011n: 1.505, 31,94%.
**Zuriak: 106.** 2011n: 53 boto zuri.
**Baliogabeak: 54.** 2011n: Baliogabeak, 24.

## Udal hauteskundeak 2011



| Logo | Hautagai-zerrenda | Kolorea | Botoak | Botoen % | Jarlekuak |
|---|---|---|---|---|---|
| | BILDU | | 1.530 | %48,88 | 7 |
| | ARALAR | | 563 | %17,99 | 2 |
| | Hamaikabat! | | 506 | %16,17 | 2 |
| | EAJ-PNV | | 248 | %7,92 | 1 |
| | PSE-EE | | 217 | %6,93 | 1 |
| | PP | | 66 | %2,11 | - |

# Josune Urkola, Usurbilgo EAJ: "Oso pozik gaude emaitzekin"



**Aspaldiko babesa handiena eskuratu ondoren, lau ordezkari izango ditu EAJk.**

"Ezin sinisturik", hala erantzun zigun Josune Urkolak EAJko hautagai nagusiak, igande gauez telefonoz izan genuen solasaldian. "Emaitzan gora egitea espero genuen. Gure aurreikuspenen arabera, hiru zinegotzi espero genituen. Lau atera ditugu eta oso pozik gaude. Batzokian gaude telebistari begira, ospatzen".

Orain arte bakarrik aritu da udaletxean, baina beste hiru kide izango ditu legealdi berrian Josune Urkolak.

**Aspaldiko emaitza onenak**

"Batez ere horregatik gaude pozik. Laguntza izugarria izango da hori. EAJ-PNV alderdiak gainera, aspaldiko emaitza onenak lortu ditu". Usurbilen bertan, ia laukoiztu egin ditu. "Duela lau urte 248 bozka batu genituen, eta honakoan 800dik gora".

# Fermin Orue-Echevarria, PSE-EE: "Arduraz egingo dut lan"

PSE-EEk biharamunean igorri zigun balorazio bat idatziz. Fermin Orue-Echevarriak lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkie sozialisten alde bozka eman dutenei: "PSE-EE hautes-zerrendaren alde bozka eman duten herritar guztiei eskerrak eman nahi dizkiet, eta bozka horiekin ordezkaritza izango dugu udaletxean".



**"Erronka zaila genuen baina berriz ere ordezkaritza izango dugu udaletxean", Fermin Orue-Echevarriak esan digunez.**

**"Erronka zaila genuen"**

Alderdi sozialistak ez ditu emaitza onak lortu. Baina Usurbilen, beste herri askotan ez bezala, gora egin du bozka kopuruan. Fermin Orue-Echevarriaren esanetan, "erronka zaila genuen aurretik, baina berriz ere sozialistak ordezkaritza izango dugu udaletxean. Gainera, igoera txikia izan arren, bozka kopuruan igo egin gara. Zentzu horretan, oso pozik nago".

Zinegotzi kargutik, arduraz jokatzeko asmoa du alderdi sozialistako ordezkariak: "jakitun gara Bilduk gehiengo absulutua lortu duela, baina era berean, bozka eman diguten bizilagunen ahotsa entzunarazi egingo dugu datorren legealdian. Arduraz lan egingo dut herriarentzat onuradunak diren ekimenak proposatuz".

## Batzar Nagusiak 2015




| Logo | Hautagai-zerrenda | Kolorea | Botoak | Botoen % |
|---|---|---|---|---|
| | EH BILDU | | 1.637 | %55,42 |
| | EAJ-PNV | | 705 | %23,87 |
| | PODEMOS | | 285 | %9,65 |
| | PSE-EE | | 186 | %6,30 |
| | PP | | 58 | %1,96 |
| | IRABAZI | | 43 | %1,46 |
| | Ciudadanos | | 30 | %1,02 |
| | UPyD | | 10 | %0,34 |

## Batzar Nagusiak 2011



| Logo | Hautagai-zerrenda | Kolorea | Botoak | Botoen % |
|---|---|---|---|---|
| | BILDU | | 1.574 | %50,94 |
| | EAJ-PNV | | 403 | %13,04 |
| | ARALAR | | 377 | %12,20 |
| | Hamaikabat! | | 336 | %10,87 |
| | PSE-EE | | 241 | %7,80 |
| | PP | | 97 | %3,14 |
| | Ezker Batua-B | | 28 | %0,91 |
| | Berdeak-Verdes | | 22 | %0,71 |
| | UPyD | | 4 | %0,13 |

# Dantzariak, Urdiñarbeko Musika Egunean



Urte luzez erabili ez diren jantziak konpontzen aritu direnei eskerrak eman nahi dizkiete.

"Asteburuan Zuberoako Urdiñarbe herrian ospatu den Musikaren Egunean parte hartzen izan gara Usurbilgo Dantza Taldeko kideak. Pixkanaka indartzen doan helduen taldeak Gipuzkoako dantzen erakustaldi txiki bat egin dugu jaialdian, bertako talde desberdinekin oholtza elkarbanatuz. Eguraldia triste xamarra izan dugun arren, xuberotarrek egin diguten harrera ezinhobea izan da, eta guztion artean giro paregabea sortu dugu", berri eman dutenez. Lerroon bidez bestalde, "azken hilabeteetan arropak txukundu, garbitu eta berritzen lagundu digun jostun taldearen lana eskertu nahi dugu. Urte luzez erabili ez diren jantziak konpondu eta falta zirenak josten aritu dira asteazkenero Potxoeneko ganbaran. Espero dugu traje berri hauek aktuazio askotan plazaratzeko aukera izatea!".

## Gipuzkoako konposta, udal baratzeetako ongarri

Gipuzkoan biltzen den organikoa konpost bihurtuta, ongarri gisa baliatuko da 10 udalerriek osatzen duten Baratze Parke Sarean (BPS). Tartean, Usurbilgo Agerreazpiko udal baratzeetan, Kutxa Ekoguneak eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak hitzarmena berritu dute eta: "Hitzarmen honen ondorioz BPS-ren erabiltzaileek lurzorua mimatzeko eta barazkiak elikatzeko behar adina konpost izango dute eskura, eta bide batez, hondakin organikoen zikloari itxiera emango zaio, sukaldetako hondakinak berriz ere sukaldetara itzuliz, barazki gozoen itxurapean baina", berri eman dute sinatzaileek.

**Kalitate goreneko konposta**

Kalitate goreneko konposta izango da udal baratzeetarako baliatuko dena. A+ kalitatekoa da Gipuzkoa Konposta, "gure etxeetan oso ondo bereizten ari garen seinale".

## Enkantean, udal jabetzako bi pisu Santuenean

Hilabeteko epea dute interesdunek, eskaintzak aurkezteko. Bi etxebizitzon "irteera prezioa hobetzen duten eskaintza onenei izendatuko zaizkio etxebizitzak".

**A. etxebizitza**

Helbidea: Santuenea, 17-1º A.
Azalera: 50,00 m2.
Gutxieneko prezioa: 90.248,90 euro.
Gehienezko prezioa: 106.323,45 euro.
Ezaugarriak: Sukaldea, sala, 2 logela eta komuna.

**B. Etxebizitza**

Helbidea: Santuenea, 25-3º ezkerra.
Azalera: 59,27 m2.
Gutxieneko prezioa: 106.323,45 euro.
Gehienezko prezioa: 132.823,45 euro.
Ezaugarriak: Sukaldea, sala, 2 logela eta komuna.

**Informazio gehiago:**
Usurbilgo Udala
943 371 951
kontratazioa@usurbil.eus

## Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa, Sutegin

**Maiatzak 31, igandea**

■ 11:30 Goizeko saioko parte hartzaileak: Adur Gorostidi Urkia, Egoitz Aizpuru Sanz, Ane Zuazubiskar Iñarra, Danel Olano Eizagirre. Ibai Esoain Arruti, Oier Etxeberria Zubimendi.

■ 17:30 Arratsaldeko saioko parte hartzaileak: Haritz Mujika Lasa, Manex Astigarraga Bergara, Manex Mujika Amunarriz, Aitor Salegi Martija, Antton Fernandez Lasa, Jon Iturriotz Nazabal.

■ Sarrerak: egun berean salgai. Takila 10:00etan irekiko da goizez eta 16:00etan arratsaldez. Gogoan izan saio guztietan aforoa mugatua dela. Saio bakoitzeko sarrera 4 euro, 6-16 urte arteko gazteek eta Bertsozale Elkarteko bazkideek. 6 euro gainerakoek.
Informazioa: bertsozale.eus
Antolatzailea: Gipuzkoako Bertsozale Elkartea.
Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

## Santixabel jaietako bilera Potxoenean

Hilabete pasatxo baino ez herriko festetarako. Jai Batzordeak prestaketa lanen zati handi bat bideratua du jada. Astelehenean, ekainaren 1ean bilduko da azken aldiz, 18:00etan Potxoenean. Egun berean itxiko dute bestalde, Santixabeletako Bertsopaper Lehiaketarako lanak aurkezteko epea. 16 urtetik gorakoei zuzenduriko ekimenean parte hartzeko, idatzi 8-10 bertso eta helarazi ekainaren 1a baino lehen, Usurbilgo Udalera. Lanak izengoitiz aurkeztu beharko dira (originala eta 3 kopia) eta aparteko gutunazal itxi batean, parte hartzailearen datuak.

**Txupinazoa nork bota**

Bestalde, zuen esku aurten ere, jaietako txupinazoa nork jaurtiko duen erabakitzea. Santixabelak hastea nork merezi duen argi baduzue, helarazi zuen proposamenak kultura@usurbil.eus helbidera, edo Potxoenean eta Sutegin jarri dituzten kaxetan utzi, maiatzaren 29a baino lehen.

## Matrikulazio astea, Zumarte Musika Eskolan

Ordutegi honetan: 11:00-13:00 eta 16:30-19:30. Informazio gehiago: 943 371 594 (arratsaldez deitu) / zumarte.org

## Muxurbil, ikasturte amaieran

Kurtso amaierako emanaldia eskainiko dute larunbat eguerdian, 12:00etatik aurrera Sutegin. Ekitaldirako sarrera doan. Ixabel Agirresaroberen taldeak egindako lanketa ezagutzeko aukera paregabea.

## Mariskadaren zozketa

Sagardo Eguneko mariskadaren zozketan 0385 zenbakia irten zen. Irrati tabernan saldu zen eta irabazlea atera da. Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak, bestetik, elkarretaratzea deitu du, maiatzaren 29an ostirala, 20:00etan hasita Mikel Laboa plazan.


ARDI-BELTZ
1.GO URTEURRENA
EKAINAK 5 , 6 ETA 7
ETA OSPATZEKO....
2X1
GARAGARDO GUZTIETAN
ASTEBURU OSOAN
D´VICIOren KONTZERTUA!!!
Neska kubatarrak, euskal
abeslarien bertsioak abesten!!!
EKAINAREN 6AN, (LARUNBAT GAUA)
Puntapax 12 Bajo - Usurbil
943 37 73 30
@ardi_beltz


KILOMETROAK 2015 USURBIL
"Usurbilgo ikastolaren sorrera"
dokumentalaren aurkezpena
Ekainaren 5a
19:30ean Sutegi Aretoan




# Buruntzaldeko autoeskoletan gidabaimena euskaraz

# GIDABAIMENA MERKEAGO LOR DEZAKEZU!!

## BURUNTZALDEAN NON:

| | | |
|---|---|---|
| **Andoain** | | |
| BENGOETXEA | Juan Bautista Erro 9 | 943 59 44 06 |
| MENDI | Agustín de Leitza 11 | 943 30 06 04 |
| **Astigarraga** | | |
| OTAMENDI | Zubiondo 14 - LOIOLA | 943 45 11 07 |
| **Hernani** | | |
| HERNANI | Latsunbe 3 | 943 55 05 34 |
| | Urbieta 7 | 943 55 34 16 |
| LAGUNAK | Karobieta 1 | 943 33 14 19 |
| OTAMENDI | Izpizua 1 | 943 55 35 45 |
| **Lasarte-Oria** | | |
| IZARRA | Geltoki 11 | 943 37 70 05 |
| LASARTE | Nagusia 5 | 943 37 06 92 |
| MUGICA | Ganbo 1 | 943 36 22 75 |
| **Urnieta** | | |
| SOLOZABAL | Idiazabal 24-1C | 943 33 41 69 |
| **Usurbil** | | |
| SOLOZABAL | Irazu 2 | 943 37 69 36 |

MERKEAGO ATERATZEA NAHI?

# GIDABAIMENA EUSKARAZ!!

AZKEN TEKNOLOGIAN MURGILDUTA IRUDIEKIN JOLASEAN

EMAN BIDEA

HAUXE DUZU GIDABAIMENA ATERATZEKO MODURIK ERAKARGARRIENA!!!

# Orain gidabaimena EUSKARAZ

# ETA HORI GUTXI BALITZ...

ZOZKETAN PARTE HARTZEKO AUKERA
11 SARI BURUNTZALDEAN:
TEORIKOAREN BALIOA (400 € GEHIENEZ)

## BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

- PARTE-HARTZAILE GUZTIAK BURUNTZALDEKO HERRIREN BATEAN ERROLDATUTA EGOTEA.
- GIDABAIMENA EUSKARAZ ATERATZEA
  *2015eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz gainditu dutenek hartuko dute parte zozketan. (Esku-orri honetan agertzen den edozein autoeskolatan).*
- PARTE HARTZEKO HURRENGO DATUAK BETE ETA AUTOESKOLAN BERTAN UZTEA.

IZEN-ABIZENAK

HELBIDEA

HERRIA

ZURE TELEFONOA

AUTOESKOLA

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo
**Udaletako Euskarako Batzordeak**


ESKERRIK ASKO USURBIL!
866
eaj-pnv.eus
gipuzko.eus
eaj
pnv

# Aitortza, ikastolaren sortzaileei

#Kilometroak15 ekimenaren aldeko aurkezpen ikuskizunean egon zinetenok, gogoan izango duzue ekitaldian zehar, Udarregi Ikastolaren sorrerari lotuta ikusi eta entzun genituen zenbait herritarren lekukotza. Ekainaren 5ean 19:30etan Sutegin estreinatuko den dokumentalaren aurrerapentxo bat baino ez ziren, hunkidura eragin zuten adierazpen haiek. Jexux Agirresarobe eta Aitziber Elortza herritarrek bideratu dute ikastolaren sorrerari buruzko ikus-entzunezkoa. Egun dugun ikastola sortzeko hainbat herritarrek egin zuten lan isil eta ahalegin itzelari merezitako aitortza egin nahi diote lan honen bidez. Hunkitzeaz gain, "jende asko identifikatua sentituko da ikusiko duenarekin", iragarri dute antolatzaileek.



Dokumentalaren egileek esan digutenez, "egun dugun ikastola, haiei esker da".

**Nola jaio zen proiektu hau?**

**Aitziber Elortza:** Udarregi Ikastolako Artezkaritza Kontseiluan nengoenean. Kilometroak zetorrela eta, horren bueltan bururatu zitzaidan, Usurbilen ez dela sekula egin lanketa edo aitorpen bat, ikastola sortu zutenei. Ez da sekula aztertu, aitortu gehiegi ere ez, merezimendu handikoa izan arren. Kilometroak zetorrela eta, nahi izanez gero sorrera prozesua nola izan zen arakatuko nuela proposatu nuen. Gero lanketari zer formatu eman, beste batzuen esku utziko nuela. Ikastolatik egitasmoa martxan jartzeko esan zidaten.

**Egileok ere lotura estua duzue ikastolarekin?**

**A.E.:** Ikastolako haurrak gara. Geure gurasoak ere ikastolaren alde inplikatu izan direnak baita. Informazio eta lotura zuzena genuen. Hartatik ere bagenuen nondik tira. Horregatik proposatu nuen gai honen lanketa, gai hau oso gertutik bizi izan dudalako.

**Zer hari muturrari tira diozue dokumentala osatzeko?**

**Jexux Agirresarobe:** Hezkuntza publiko espainiarra zegoen garaian kokatzen da dokumentala, 1968-72, ikastolaren hasierako urteetan. Guraso batzuk ez zeuden prest beren umeak sistema horretan hezteko. Beste leku batzuetan bezala, Usurbilek bere hezkuntza behar zuela erabaki zuten, bertakoa, hemengo sustrai, nortasun eta hizkuntzatik eraikia.

*JEXUX AGIRRESAROBE*

***"Mehatxu handiei aurre egin behar izan zieten. Baina beharrak agintzen zuen"***

**Lekukotza bila, zeinengana jo duzue?**

**J.A.:** Errealitate hura aldatzeko beharra zegoela ikusten zutenena. Oso jende gutxi zen, urte haietan ikastolaren aldeko apustua egin zuena. Zazpi lagun hautatu ditugu. Antolatze lanetan jardun zutenak, gurasoak, irakasleak eta ikasleak hartu eta norbere ikuspegia jorratuz egin dugu lanketa hau.

**Gutxi izan ziren, baina ausardia handikoak?**

**J.A.:** Ikaragarri ausartak. Jende soila eta abertzalea. Inkonformistak, garai hartako errealitatearekin ados ez zeudenak. Oso garrantzitsua da izan zuten ausardia hori, dokumentalean ikusi eta entzungo dugun moduan, asko arriskatu baitzuten. Garai hartako gurasoak askoz ausartagoak eta berritzaileagoak ziren.

**Zerotik hasi behar izan zuten.**

**J.A.:** Garai hartan egin zuten apustua ikaragarria izan zen, gaur egun pentsaezina. Hezkuntza publikoa den bitartean, hezkuntza ofiziala, estatala da. Herritar haiek aldiz, publikoa nahi zuten, baina ez besteen esku egongo zena. Geurea, propioa nahi zuten. Diru laguntzarik jaso gabe, herritarrak beren dirua jarrita, euren dirutik eraiki zuten seme-alaben etorkizuna. Hori baino herrikoiago edo publikoagorik ez dago.

**A.E.:** Zer gertatu zen eta zergatik azaltzen da dokumentalean. Horrek ere garrantzia du. Dokumental hau egin da, gaur egun ikastola zer den kuestionatzeko neurri batean. Benetan ikusteko non gauden.

**Nola eman zituzten lehen urratsak?**

**A.E.:** Ez zen Usurbilgo kontua bakarrik. Entzuten zuten inguruan ere bazebiltzala ahalegin berean. Oro har mugimendu handi bat izan zen. Alde horretatik babes hori bazen. Elkartzen eta bilerak egiten hasi ziren.

**J.A.:** Kezka zuen jende hori bildu, adituak ziren batzuk ekarri, esperientziadun jendea, eta hala hasi ziren.

**Zer dugu ikasteko herritar haiengandik?**

**J.A.:** Ausardia, militantzia, eta euskaltzaletasun handia zuten. Bazekiten zer zen geurea. Harritu gaitu, garai hartan gutxi izan arren, aparte zenbat jende bolondres zegoen laguntzeko prest. Izugarria.

**A.E.:** Behar bat bezala ikusten zuten ikastolaren sorrera. Dokumentala ikusita, norberak hobeto hausnartuko du gai honi buruz.

## "Elkarrizketatu dugun jendeak zeresan handia du"

**Erraza egin al zaizue buruan zenuten ideia dokumental batean islatzea?**

**A.E.:** Nahiko erraza egin zaigu. Elkarrizketak ere uste genuena baino askoz emankorragoak izan dira. Sorpresa handiak hartu ditut.

**J.A.:** Elkarrizketatu dugun jendeak zeresan handia zuen. Aitziberrek eta biok edukiaren nondik norakoa lotu dugu. Luis Jambrina herritarraren laguntza handia izan dugu. Luxu bat da Luis bezalako pertsona bat Usurbilen izatea.

## Estreinaldia, ekainak 5

Ikastola Egunaren bezperatan estreinatuko da Udarregiren sorrerari buruzko dokumentala.

**Maiatzak 27, asteazkena**

17:00 LH 5 eta 6 mailetako ikasleen bertso jaialdia, Udarregi Ikastolako erdiko aretoan. LHko 5. eta 6. mailako ikasleak.

**Ekainak 3, asteazkena**

18:30 Udarregi Ikastolako HH5 eta LH5ekoen kantagintza saioa Sutegiko auditorioan. Doan.

**Ekainak 5, ostirala**

17:00 Haurrentzako jolasak, Askatasuna plazan.

18:00 Txokolate jana, Askatasuna plazan. Jarraian, buruhandiak. Bakoitzak bere etxetik ekar ditzala.

19:30 "Usurbilgo ikastolaren sorrera" dokumental estreinaldia Sutegin. Jarraian luntxa, frontoian.

## Ikastolaren Eguna

**Ekainak 7, igandea:**

10:00 Esnadeia.

09:00-12:00 LH eta DBHko ikasleen jokoak.

10:30-13:00 Erakusketak Oiardo Kiroldegian eta Ikastola gorrian.

12:00 HHko Haur Jaialdia.

14:00 Herri bazkaria. Txartelak ekainaren 2ra arte salgai idazkaritzan.

Antolatzaileak: Udarregi Ikastola, #Kilometroak15 eta Hitz Aho.

# “Indarkeria sexista prebenitzeko trebetasunak lantzen ditugu”

Ia 3 hamarkada munduan zehar indarkeria sexistaren aurkako prebentzio lanetan. Esperientzia zabala duen Maitena Monroy dator ekainaren 6an Potxoeneara, Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak antolaturiko autodefentsa feminista ikastaroa eskaintzera. Egun osoko saioa izango da, goizez 09:30-13:30 artean eta arratsaldez, 15:00etatik 19:00etara. Izen emateko: 943 377 110 edo parekidetasuna@usurbil.eus. Ikastaroaz zehaztasun gehiago eskaini dizkigu Maitenak lerrootan. Informazio gehiago: autodefensafeminista.com


Ekainaren 6an egingo da ikastaroa eta Maitena Monroyk gidatuko du.

**Autodefentsa feministaz ari garenean, fisikotik haratago doan autodefentsaz ari gara?**

**Maitena Monroy:** Hala da. Emakumeok jasaten dugun indarkeria handiena ez da fisikoa. Egia da, ikusgarriena indarkeria fisiko basatiena izaten dela; emakumeen hilketak edo feminizidioa. Baina emakumeen aurkako indarkeria adierazpen gehienek beste formatu bat izaten dute; indarkeria sinbolikoa. Indarkeria sexistatik autodefendatzeak, gaitasun fisikoak bakarrik ez, batez ere emakumeen ahalduntzearekin loturiko gaitasunak izatea eskatzen du. Munduaren aurrean norbanakoak duen posizionamendutik haratago doa, emakumeen egoera orokorra eta zergatik gertatzen den ezagutu eta aitortzean oinarritzen da. Indarkeria emakumeen mendekotasuna bermatzeko diskriminazioaren zerbitzura dagoen instrumentua dela jabetzean.

**Autodefentsa feministak zertarako prestatzen ditu emakumeak?**

